ESKUINEKO BENTRIKULUKO MIOKARDIOPATIA ARRITMOGENIKOAREN FAMILIA-AZTERKETA

Eskuineko bentrikuluko miokardiopatia arritmogenikoa gaixotasuna da eta adierazi nahi du eskuineko bentrikuluko muskuluaren zati bat pixkanaka desagertzen ari dela. Horren ordez, orbain txikiak eta gantz-guneak agertzen dira. Miokardiopatiak miokardioaren gaixotasuna esan nahi du (bihotzeko muskulua), eta arritmogenikoak adierazten du arritmiak edo takikardiak zein erraz gertatzen diren. Arritmiak badituzu, batzuetan larriak izan daitezke. Beraz, azterketak egin behar dira tratamendu egokia jartzeko eta horrela konplikaziorik ez gertatzeko. Bihotzeko muskulua galtzean ahultasuna ager daiteke, baina eskuineko bentrikuluak bere funtzioa betetzeko behar duen indarra txikia da, eta ez da bihotz-gutxiegitasunik izaten (ponpak ondo funtzionatzen du normalean). Eritasun horren arazo nagusia da arritmiak edo takikardiak agertzea, orbainen inguruan narritatuta geratzen diren eremuen ondorioz.

Eskuineko bentrikuluko miokardiopatia arritmogenikoa gaixotasun arraroa da, eta horren kausa ez da guztiz ezagutzen. Jakina da alterazioak daudela, preseski, muskulu-zuntz batzuk beste batzuekin lotzeko beharrezkoak diren proteinetan. Hain justu ere, errore bat dago proteina horiek kantitatean fabrikatzeko edo ainguratze-funtzio egokia izateko beharrezko informazioa duen gene batean. Gaitz hori herentziazkoa izan daiteke, % 30 inguruan. Gaixotasuna herentziazkoa denean, gaixoek seme-alabei pasa diezaiekete % 50eko aukerarekin (herentzia autonomiko nagusia). Herentziazkoa izan arren, nerabezarora edo helduaro gaztera arte ez da garatzen, eta, beraz, haurrek ez dute inolako alteraziorik izaten bihotzean.

Pertsona bat kaltetuta egon daiteke eta, aldiz, sintomarik ez izan; beraz, beharrezkoa da miaketa fisiko bat egitea, elektrokardiograma eta ekokardiograma, Holter eta, batzuetan, bihotzeko erresonantzia. Hori berebizikoa da, konplikazioak saihesteko tratamendu goiztiarra has baitaiteke.

Zuri edo zure senide bati eskuineko bentrikuluko miokardiopatia arritmogenikoa diagnostikatu badizute, azterketa bat egiteko aukera eskaintzen dizugu, zuretzat ez ezik, zure familiarentzat ere nahitaezkoa iruditzen zaiguna; izan ere, gaixotasunen bat duen senideren bat aurkituz gero, garrantzitsuagoa da zure ondorengoen eta gainerako senideen jarraipena egitea.

Azterketa honetan datza: historia klinikoa (sintoma eta aurrekari klinikoei buruzko galderak), miaketa fisikoa (auskultazioa, etab.), elektrokardiograma eta ekokardiograma.

Baimena ematen baduzu, odol-lagin bat jasoko dugu, gaixotasun horri buruzko azterketa biokimikoak eta genetikoak egiteko. Bildutako datuak euskarri informatikoan gordeko dira, eta odol-lagin izoztu bat gordeko da, ondoren analisia egiteko.

945007304 telefonora deituta (AUO KK Kardiologiako idazkaritza), goizeko ordutegian, lanegunetan, gure kontsultarako hitzordua emango dizugu (guk ebaluatutako senidearen izena eskatuko dizugu). Azterketa horiei buruzko zalantzarik baduzu, deitu telefono honetara, eta izan dezakezun edozein arazo konpontzen saiatuko gara.